

## GURE KONPROMISOAK (DBH/BATXI)

Aipatutako emaitzak aztertu ondoren, gure konpromisoak hartu ditugu. Jarraian, DBHn eta batxilergoan adostutakoak azalduko dizkizuegu.

- Garraio publikoa gehiago erabiliko dugu.
- Bizikletan kaskoa jarrita eramango dugu.
- Posible den herrietara oinez edo bizikletaz mugituko gara.
- Bizikletan abiadura motelagoan ibiliko gara.
- Posible denean kotxea erabili ordez, zerbitzu publikoa erabiliko dugu.



## PROPOSAMENAK UDALERA

Konturatu gara udalaren laguntza ezinbestekoa dela proiektu honetan eta hauek ez dira udal ordezkariari helarazi nahi dizkiegu proposamenak.

### Lehen Hezkuntzako proposamenak:


- Zeinbait puntuetan semaforoa jartzea, Rondilla kalean adibidez, batzuetan autoak ez dira gelditzen. Denbora luzatu eta itxurentzako sistemaren bat jartzea.
- Abiadura neurgailu gehiago jartzea gune arriskutsuetan. Adibidez: Amaratzen, Paper kalean... Zuzenak diren errepideetan autoek abiadura handia hartzen dute.
- Seinaleak bistara eta modu egokian ipintzea, eta zaharrak berritzea. Batzuetan zuhaitzen adarrak tapatu egiten dituzte eta besteetan pegatinak dituzte gainean.
- Bidegorriaren loturak bermatzea eta mantendu lanak egitea.
- Hiribusa, gehiago eta maizago jartzea, ikasleen sarrerekin bat eginez.

### DBH/Batxi-ko proposamenak:

- Autobusen/trenen maiztasunak handitzeko eskaera egitea. Hiribusan linea gehiago jartzea ikastetxeetako ordutegiarekin bat egiteko aukera izateko.
- Herriko bidegorriaren sarea eta loturak osatzea.
- Irristakorrak diren lur zoruak hobetzea eta elbarrientzako trabak ekiditea.
- Gazteei eta umeei zuzenduta bizikletak era egokian erabiltzeko kontzientziazio saioak egitea.

Hau izan da ikasturte honetan egindako lanaren laburpena, datorren ikasturtean Esku-Hartze fasean murgilduko gara eta ekimenak diseinatu eta martxan jarriko ditugu, herriko mugikortasuna hobetzeko eta ateratako ondorioei aurre egiteko asmoz.

**Eskerrik asko zuen arretagatik!**



MUGIKORTASUN JASANGARRIA

## TOLOSAKO UDAL FOROA

2024 - 2025 ikasturtea



Iritsi da ikasturte amaiera eta urtero bezala, udaletxera hurbildu gara, ikasturte honetan Eskolako Agenda 2030 proiektuan herri mailan egindako lanak azalduz emateko. Aurtengoan, Garapen Jasangarrirako (GJH) 11. Helburua izan dugu abiapuntua, HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK eta gehiago zehazte arren, **MUGIKORTASUN JASANGARRIA** izan da Tolosaldeko ikastetxe guztietan landu dugun gaia.

**TOLOSALDEAN** Aduna, Anoeta, Amasa-Villabona, Asteasu, Berastegi, Ibarra, Irura eta Zizurkilgo ikasleek ere parte hartu dute Eskolako Agenda 2030 egitasmoan. Baina ez gaude bakarrik, irakasle, eskolako beste langile, eta gurasoak ere parte hartzen dute.


**22 urte** daramagu Tolosako ikastetxeek programa honetan elkarlanean. Jarraian, Herrikide ikastetxeak, Laskorain ikastolak, Orixe institutuak eta Samaniego ikastetxeak ikasturte honetan egindako lanaren laburpena azalduko dizuegu, haur hezkuntzatik batxilergoraino.

## HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN EGINDAKO LANKETA

**Haur Hezkuntzako** ikasleek gela barruan egin dute lanak. Eskolara nola joaten diren eta horren zergatiak hitz egin dute, garraio desberdinak ezagutzeko aukera ere izan dute eta bukatzeko, ikasi dute ezagututako garraio horietatik batzuek beste batzuek baina ke gutxiago sortzen dutela eta osasuntsuagoak direla. Gabonetan gure bizikletarako matrikula egin dug.u

**LHko lehenengo zikloan** eskolarako bidea aztertu dugu. Oinez joateak dituen abantailak zerrendatu ditugu eta horretaz gain familiaren laguntzarekin etxean inkesta bat bete dugu gure ohiturak ezagutzeko. Ikusi dugu gehiengoak oinez joaten garela ikastetxera eta lagunekin bizikletaz joatea gustatuko litzaigukeela. Gehiengoak auto bat dugu etxean eta askotan bi. Hau da gehien erabiltzen den garraioa. Garraio publikoa gutxi erabiltzen dugu ordutegi bat bete behar delako.

**LHko bigarren zikloan** kalera atera gara, behaketa lana egitea eta elementu fisikoak aztertzeaz gain herriarren jokabideetan fikatzen aritu gara, oinezkoenak zein gidarienak.





## GURE KONPROMISOAK (HH/LH)

Lanketa burututa eta bertatik ondorioak atera ondoren, gure konpromisoak hartu ditugu. Jarraian, **Haur eta Lehen hezkuntzan** adostutakoak azalduko dizkizuegu.

- Bizikletan joaten garenean bidegorriak erabiliko ditugu, espaloiak eta zebra-bideak errespetatuz eta oinezkoak errespetatuko ditugu.
- Arauak beteko ditugu, trafiko seinaleak eta semaforoak errespetatuz.
- Gu baina zailtasun gehiago dutenei laguntzen saiatuko gara.
- Bizikletaz talde handian goazenean binaka joango gara.
- Posible den guztietan oinez edo bizikletaz mugituko gara.
- Garraio publikoa gehiago erabiliko dugu.

## BIGARREN HEZKUNTZAN EGINDAKO LANKETA

**DBH 1-2:** Kalera atera gara bizikletan ibiltzen direnak eta bidegorria aztertzeraz. Ibilgailuak ere kontatu ditugu eta hauen inguruan hausnartu dugu.

**DBH 3-4:** Lanera zein erosketetara joateko ohiturak eta mugitzeko beharrak aztertu ditugu.



Herritarren erantzunetatik jasotako ondorio batzuk:

- Tolosan oinezkoei garrantzi handia ematen zaie.
- Patinete elektrikoak oso azkar ibiltzen dira.
- Oinezko batzuek begiratu gabe gurutzatzen dute zebra-bidea eta bidegorritik joaten dira arazoak sortuz.
- Kotxe batzuk gaizki aparkatuta egoten dira.

**LHko hirugarren zikloan** etxeko autoak eta mugitzeko ohiturek aztertu ditugu. Herritarren mugitzeko ohiturak ondo aztertzeko kalera atera gara galdetegi bat betetzera.

Hauak izan dira aipatutako arrisku batzuk:

- Errepideetan eta oinezkoen guneeetan zuloak, koskak eta hautsitako baldosak daude, adibidez Amartzeko tunelean, Plaza Berrian eta Triangulo Plazan.
- Zebra-bideak ondo margotu behar dira.
- lurreamendi ibilbidean bizikletak arriskua eta beldurra sortzen dute.
- Kirodegiko zubiaren zoruko egurrak arriskutsuak dira.
- Gune batzuetan espaloia estuegia da, Kondeaneko aldanen adibidez.



Hauak izan dira ateratako ondorioak:

- Trafiko arazoak egoten dira Tolosan, bereziki goizeko 8-tan, arratsaldeetan eta larunbat goizetan.
- Kotxe askok ez dituzte zebra-bideak errespetatzen.
- Bizikleta lapurreta asko egoten dira, bereziki kiroldegia kanpoan eta Triangulo plazan.
- Bizikleten trafikoa izugarri handitu da eta ordu zehatz batzuetan bidegorrian ez gara sartzen.
- Bizikleta aparkaleku gutxi dago eta horregatik aparkatzen ditugu behar ez den lekuetan: bankuetan, zuhaitzetan...
- Bizikletak oinezkoen ondotik ziztu bizian pasatzen dira eta hori ez dago ondo.
- Ikasleak musika entzunez joaten gara eta hori oso arriskutsua da.
- DBHko ikasleoi lotsa ematen digu kaskoa ipintzea.

**BATXILERGOA:** San Frantzisko eta Rondilla kalea aztertu ditugu eta hau ikusi dugu:

San Frantzisko kalean:

- Oinezkoentzako toki zabala dago eta ibiltzeko atsegina da.
- Desgaitasun fisikoa dutenentzat, ume-kotxeentzat... ez dago oztoporik.
- Bidegorria zeharkatzen du.

Rondilla Kalean:

- Espaloiak estuak dira, oinezkoentzako ez da atsegina.
- Desgaitasun fisikoa dutenentzat, ume-kotxeentzat... ez da batere eroso.
- Jendeak zebra-bidetik kanpo gurutzatzen du eta kotxeek ez dituzte hauak errespetatzen.
- Bidegorria falta da.

